

Txertoak seguruak dira

horiek gomendatzea gure erantzukizuna da

Txertaketaren garrantzia

Gaixotasun immunoprebenigarriak osasun publikoko arazo bat dira.

Txertoen onurak ezagutzea eta txertaketa-egutegiari jarraitzea garrantzitsua da gaixotasunak eta konplikazioak prebenitzeko eta bizitzak salbatzeko.

Txertoa hartzea elkartasunezko ekintza da. Txertoa hartzen duten osasun arloko profesionalak beraien burua eta ingurukoak babesten dituzte.



Noiz txertatu?



Kontsultatu bizitza osoko txertaketa-egutegia



Txerto bakoitza bere garaian

Nor txertatu behar da?

Txertoak ez dira haurtzaroan bakarrik beharrezkoak, baita helduaroan ere, adinarekin immunitatea galtzen baita.

Osasun arloko profesionalak, gaixotasun batek adin bakoitzean duen arriskuaren arabera gomendatutako txertoen berri emango dute.

Herritarrek konfiantza dute osasun arloko langileengan eta langile sozio-sanitarioengan; horregatik, txertatzea eta txertoak gomendatzea funtsezkoa da.



Txertaketaren onurak

Frogatuta dago txertoak seguruak direla eta izan ditzaketen albo-ondorioak arinak direla gaixotasuna izatearekin alderatuta.

Hona hemen zenbait onura:

- Gaixotasunaren konplikazioetatik babestea, baita minbizi mota batzuetatik edo/eta heriotzatik ere.
- Gaixotasunak kontrolatzen, ezabatzen, eta batzuetan desagerrarazten, laguntzea.
- Egoera zaurgarrienean dauden biztanleak babestea.
- Mikrobioen aurkako erresistentziak murriztea.



FEBRERO MARZO ABRIL MAYO JUNIO JULIO AGOSTO SEPTIEMBRE OCTUBRE NOVIEMBRE DICIEMBRE ENERO FEBRERO MARZO ABRIL MAYO JUNIO JULIO AGOSTO SEPTIEMBRE OCTUBRE